



Gatikako udala
Bizkaia

AKTA

Akta zenb.	2009/10
Organoa	Udalbatza
Batzarra	Ohiko Osoko Bilkura
Tokia	Udaletxeko areto nagusia
Eguna	2009-12-30
Deialdia	Lehenengoa
Hasiera ordua	Arratsaldeko 19'30etan.
Amaiera ordua	Arratsaldeko 19'45ean.

Bertaratutakoak:

1. Jesús M. Fullaondo
2. Iker Arostegi
3. Kepa Arrizabalaga
4. Leixuri Arrizabalaga
5. José M. Markaida
6. Deitze Erkoreka
7. Maite Elordui

Ez da etorri, baina horretarako arrazoiak emon dauz: Iñaki Aginaga eta Gotzon Arrieta.

Aholkulari juridikoa: Ortzi De la Quintana.

Behin-behineko Idazkaria: José Ignacio Etxebarria Atutxa.


Idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar dan gutxieneko kopurua dauala ikusi ondoren, eguneko aztergaiari agertutako gaiei buruz eztabaidatu dabe:

1.- ARTEKO BILKURATAKO AKTEN ONARPENA.

2009ko azaroaren 12ko eta 26ko bilkuratako aktak, ahobatez onartzen dira.

2009ko azaroaren 26ko ohiko bilkurako aktaren gainean, Deitze Erkoreka zinegotziak ohar bat jakinarazoten dau eta hurrengoa da:

Azaroaren 26ko aktan eskabide eta galderan barruan sartu zala euren mozioa eta uste dauala ez dagoela ondo.



Gatikako udala

Bizkaia

Idazkariak erantzuten deutso, mozio sartze eskakizuna eurek eskabide eta galderak puntura pasa ostean egiten dabela, eta gero nahiz eta Maite Elorduik mozioa irakurri zauan, berak esan zauala mozioa premiazko moduan sartzeko lehenengo bozkatu behar zala mozioa sartzen dan ala ez, eta hori ez zala egin, eta orduan alkateak hurrengo plenorako uzteko egindako eskakizuna ahobatez onartu zanez, gertatutakoa aktan puntu horretan sartu daua.

2.- ALKATETZA DEKRETUAK.

2009-144 zenbakitik 2009-151 zenbakirarteko Alkate dekretuen kontu emoten da.

José M. Markaida zinegotziak, 148 eta 149 zenbakidun dekretuen gainean galdetzen dau, eta alkateak erantzuten deutso geldiarazpen honeek albokoan denuntziari jarraipena emonaz egin direla, nahiz eta obrak eginda egon.

Deitze Erkoreka eta J. M. Markaida zinegotziek esaten dabe abenduaren 23ko komisioan dekretu honeek ez zirela agertu nahiz eta fetxagatik egon behar eben.

Idazkariak erantzuten dau, dekretuen indizean komisorako datan oraindik sartu gabe egongo zirela, ze ez zirela agertzen.

3.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO ETA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ESKAKIZUNAK.

Gizarte langileak egindako txostenak kontuan harturik, ahobatez onartu dira, C.B.L. jaunari 196,61.- eurotako eta I.L.Z. andreari 167,06.- eurotako gizarte larrialdietarako laguntzak emotea, eta B.E.A. jaunari egunero beste ordu bat gehiagoko etxez etxeko laguntza zerbitzua eskaintzea.

4.- ORDEZKO BAKE EPAILEAREN HAUTAKETA.

EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak azaroaren 24ko idatzian esandakoa betetuz, Gatikako ordezkoko bake epaile kargua izateko Maria Isabel De Pablo Salazar andrea hautatzea, ahobatez onartzen da; honetarako arrazoi bakarra herriko kandidato guztien artean berau izan zala lehenengo apuntatu zana izan delarik.


5.- EHNEREN MOZIOA.

EHNEk (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) bidalitako mozioak hurrengo hau esaten dau, eta berau ahobatez onartzen da:

"Gatikako Udalak abeltzaintza eta nekazaritza sektoreekin bat egiten du, hauek sektore estrategikotzat eta nekazaritza munduaren garapenerako eta gure gizartearen beharrentzat beharrezkotzat hartzen dituelarik".

6.- ESKABIDE ETA GALDERAK.

Ez dago ezer tratatzeko.



Gatikako udala
Bizkaia

Iluntzeko 19'45etan amaitutzat emon da bilera.

IDAZKARIA

ALKATEA

(Grabazioa: WS_10148.WMA)